

PROPOSAMENAK

Gauza batzuk gure esku egon arren, ezin dugu dena guk egin eta horretarako zuen laguntza ezinbestekoa da, beraz hemen doakizkizue zuei zuzendutako hainbat proposamen.


Bigarren eta Hirugarren ziklokoak hurrengo proposatu nahi dizuegu:

- Kontuan harturik, Lehen hezkuntzako zenbait ikasle gurasoekin edo bakarrik etortzen direla eta beraiei ere aukera emateko lagunekin zein laguntzarik gabe etortzeko, ikastolara joateko BIZIBUSA sortzea. Hau da, herrian zehar, zenbait “geldialdi” jartzea ikasleak bildu eta ikastolara etortzeko. Geldialdi horiek, Anoetako eremu bakoitzean kontzentratzen den ikasle kopuruaren arabera izango lirateke.

DBH-koak proposatu nahi dizuegu:

- Datorren ikasturtean, zuekin elkarlanean, ikasle gaztetxoekin, ikastolarako bidea oinezko talde batekin egin ahal izateko eskaintza eta kudeaketa egitea.

Gure aldetik, hau izan da ikasturte honetan egindako lanaren laburpena. Aurreko urtetan bezala, zuen erantzunaren zain geldituko gara. Datorren ikasturtean esku hartze fasean murgilduko gara eta ekimenak diseinatu eta martxan jarriko ditugu, herriko mugikortasuna hobetzeko eta orain artean ateratako ondorioei aurre egiteko asmoz.



Eskerrik asko zuen arretagatik
eta nahi duzuen arte



MUGIKORTASUN JASANGARRIA

ANOETAKO UDAL FOROA

2024 - 2025 ikasturtea



EGINDAKO LANKETA

Egun on denoi! Iritsi da ikasturte amaiera eta urtero bezala, berriz bildu gara hemen, ikasturte honetan Eskolako Agenda 2030 programan herri mailan egindako lanketa ezagutzera emateko. Aurtengoan, Garapen Jasangarrirako (GJH) 11. Helburua izan dugu abiapuntua, HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK eta gehiago zehazte arren, MUGIKORTASUN JASANGARRIA izan da Tolosaldeko ikastetxe guztietan landu dugun gaia.

Jarraian Anoetako Herri Ikastolako ikasleok egindako lana azaldu nahi dizuegu. Haur Hezkuntzatik DBH-raino 334 ikasle inguru aritu gara mugikortasunaren gaia ikuspegi desberdinetatik aztertzen, eta noski irakasleen eta familiaren laguntza ere izan dugu.

Haur Hezkuntzako ikasleak, gaur ez dira etorri baina, beraiek gela barruan egin dute lanketa. Ikastolara nola joaten diren landu dute, eta garraio desberdinak aipatzeaz gain, ikusi dute bakoitzaren abantaila eta desabantailak zeintzuk diren. Orokorrean garraio gustukoena hegazkina eta trena dela ikusi da, oporraldiekin eta aisiarekin lotzen dutelako.





Lehen Hezkuntzako 1. ziklokoak “Mugi, mugi” izeneko fitxa landu dugu. Bertan, ikastolara nola gatozen aztertzeaz gain, garraio desberdinak begiratu ditugu, hauek zenbat kutsatzen duten eta guretzat ohikoenak zeintzuk diren aipatuz.

Lanketa honetan ikusi dugu, gertu bizi garen gehienok ohitura handia daukagula ikastolara oinez joateko, nahiz eta badauden kotxez joaten direnak ere, izan ondoko herrian bizi direlako edota gurasoek lanerako bidean uzten dituztelako.

Garraio ohikoenak guretzat kotxea, patinetea eta bizikleta dira. Garraio mota desberdinak ezagutzen ditu eta hauek normalean zein kasuetan erabiltzen diren aztertu dugu, argi izanik abioia dela gehien kutsatzen duen garraioa.

LHko bigarren eta hirugarren ziklokoak eskolarako bidea aztertu dugu eta kalera atera gara, behaketa lana egitea eta gure herriko kaleak nola dauden ikustera. Konturatu gara gure gurasoak eskolara joaten ziren modua eta gaur egun gu joaten garen modua ez dela asko aldatu, nahiz eta gaur egun kotxea gehiago erabiltzen den.

Gure irudipena erabiliz batzuei ikastolara hegan edo tirolina bidez joatea gustatuko litzaigukela esan dugu. Dena dela, kotxez edo bizikletaz joan nahi dugunak ere bagaude.

Kaleko behaketan, hiru gunetan zentratu gara gehienbat. Herriko zenbait puntutan espaloia oso estua dela ikusi dugu eta parez pare norbaitekin topo egitean ez dago nahikoa leku. Bestalde, leku batean baina gehiagotan ikusi ditugu gaizki aparkatutako kotxeak. Azkenik, kotxeen pilaketaren inguruan aritu gara, izan ere, euria egiten duenean, ikastolan arazo hori egoten dela ikusi dugu.

DBH

DBH-koak lanketa desberdinak egin ditugu. Batetik gure herriko hainbat kaleen azterketa egin dugu: espaloiak, hauen egoera eta bertan egon daitezen arriskuak... Bertan, ikusi dugu orokorrean gure herriko espaloiak garbiak daudela, baina Solkorren esaterako espaloia estua da, eta ikastola inguruan aldiz espaloian autoak daude.



Horretaz gain, kalera atera gara. Ikasle talde bat Anoetako kale desberdinetan 10 minutuz kokatuta egon gara, bertatik pasatzen ziren ibilgailuen inguruko azterketa egiteko. Hauek izan dira jasotako datuen laburpena: auto eta furgoneta gehienak arratsaldeko 17:00tan ibiltzen dira eta autoetan gehienetan bidaiari bakarra ibiltzen da, furgonetetan aldiz bi joaten dira.

Ibilgailuen zarata neurketan, arratsaldean egoten da normalean zarata gehien, kiroldegian 66 db, herriko baratzan 78 db eta Laxarbetik sarreran 66 db.

Bukatzeko, Ikastolako sarrera eta irteeretan ikasle gaztetxoek helduen laguntzarekin zetozenean hainbat galdera egiteko aprobetxatu dugu. Eta bertan jasotako emaitzen arabera, ikasleak bakarrik etortzeko adin egokia 7 urtetik aurrera dela diote eta helduen laguntzakin doaz batez ere segurtasunagatik eta txikiegiek direla iruditzen zaielako. Hala ere, Bizibus-erako prest daudela esan dute, hau da, taldean eta lagunekin modu antolatuan etortzea.

GURE KONPROMISOAK

Lanketa hau burutu ondoren eta bertatik ondorioak atera ondoren, konpromiso batzuk hartu ditugu.

Konprometitzen gara:

- Udal ordezkariari Anoetan aztertu ditugun kaleen alderdi positibo eta negatiboak komunikatzea. Datorren ikasturterako aurreikusi dugun proposamena aurrera eraman ahal izateko, eta elkarlana egiteko.
- Ahal den neurrian kotxearen erabilera gutxitzea, honela esaterako ikastolako sarrera-irteera orduetan pilaten diren autoen kopurua murriztuko litzateke.
- Hainbat gurasoek, beraien seme-alabak ikastolara ekartzeko arrazoiak bildu eta aztertu, eta horien arabera hobekuntzak proposatzea.

